



Eman hegoak euskarari



Euskal literatura

PALOMA RODRIGUEZ MIÑAMBRES /
JON MARTIN-ETXEESTE



ATARIAN
MAIXA ZUGASTI
Erein. 336 orr. 21 euro

Zugastiren hirugarren eleberrian, aurrekoan bezala, gizakiaren alderdi ilunetik erakarpena antzematen da. Intrigazko osagaiek ardatzen dute kontakizuna eta estimatzekoa da nola josten dituen hiru pertsonaia protagonisten ahotsak: Paula, neraberoan, eta Juan eta Leandro, zaharren egoitza berean. Zahartzaroren eta gaztaroren kezka kontrajartzeaz gain, maitasuna da gai nagusia.



AZKEN ETXEA
ARANTXA URRETABIZKAIA
Pamiela. 160 orr. 12,90 euro

Urretabizkaia atera duen eleberri interesgarri honetan adineko emakume bat agertzen da, iragana atzean utzi nahi duena. Horretarako, Hendaian etxe bat erosi eta bere nahiera apaintzen du bizitzako azken urteen lasaitasunaren bila. Elkarriketarik gabekoa eta narra-tzaile orojakilea baliatuz, identitateaz, zahartzeaz, gizon-emakume harremanez, barkadadeaz dihardu idazleak.



LAGUN MINAK
JON BENITO
Farmazia Beltza. 296 orr. 20 euro

Idazle orok kezkatzen ditu adierazkortasunak, zehaztasunak, baina Jon Benitok harago joan da 15 kontakizun hauekin. Hizkuntza apurto eta hitz berriak asmatu ditu adierazpide egokia bilatu nahian. Gaien aldetik, identitatea, desira, askatasuna edo mugak nabarmentzen dira. Irakurleari ahalegina eskatu arren, prosa eta poesiaren arteko konbinazio harri-garriak interesa pizten du.



BAR GLORIA
NEREA IBARZABAL
Susa. 192 orr. 17,10 euro

Lopetegitarrek kudeatzen duten tabernako istorioak dira Bar Gloriakoak. Izenak besterik iradoki badezake ere, ez da loria handiko gunea. Etxeko bi alabek buru-belarri dihardute lanean bertan. Bezero eta zerbitzari, guraso eta alaba... hierarkiak erreproduzitzen dituen mikro-gizartea da taberna. Haien arteko komunikazio ezak ardatzen du 27 kapitulu laburretan banaturiko eleberri gordin hau.



GARI ETA GOROLDIOZKO
ANARI ALBERDI
Susa. 120 orr. 15,20 euro

Batetik besterako ibilbidea (zinetik etxerakoa, nahiz familiako aspaldiko etxerakoa) inguruari begiratzeko aitakia da liburu honean. Prosa poetikoz idatzitako liburua da Anari Alberdirena. Linternak ganbara ilunean nola, halaxe isurtzen du argia idazleak objektu zehatzetara eta iragana eta, gordin eta xehe deskribatzen ditu. Hari xumeen bitartez gai garrantzitsuen erresonantziak sortzea, horixe da musika.



HARAGIZKO MAMUAK
KARMELE MITXELENA
Elkar. 148 orr. 16 euro

Mamu guztiek ez dute izararik. Batzuk gure azalaren barruan bizi dira eta gure parte bihurtzen dira, harik eta gure buruarekin egoiteak beldur eman diezaguken puntura arte. Donostia Hiria saria irabazi duen ipuin bilduma honetako pertsonaiek harreman intimo ilunak dituzte eta haien desioa beste nonbait dago. Elegantziaz harrikatutako ipuinak, kandela baten argitan irakurtzeko.



DESERTUAN BEHATXULOA
ANJEL LERTXUNDI
Alberdania. 224 orr. 18, 40 euro

Anjel Lertxundiren saikera honetan, idazle-bokazioa agerian jartzeaz gain, gai asko hartzen ditu hizpide go-goeta interesgarriak irakurleokin partekatzeko: kexaren kultura, naturaren suntsiketa, politika, hizkuntza, artea. Hainbat pentsalariren ideiak aipatzen ditu gainera (hala nola, Erasmo, Zweig eta Adorno) gizatasuna, etika eta onestasunaren beharra aldarrikatzeko asmoz.



UDA BETEA
ARITZ GORROTXATEGI
Elkar. 80 orr. 13,50 euro

Poema luzeak azaltzen dira Gorrotxategiren seigarren poesia-liburuan. Hiru ataletan banatuta, lehenengo olerkiak ('Himnoa') liburuaren tonua ezartzen du eta, ez kasualitatez, alearen lehen eta azken atalak 'Otoitza' izeneko poemekin ixneren dira, non igerilariaren irudia darabilen. Udaren gorazarrea, adiskidetasunaren ospakizuna eta itsasorrekiko mirespena nagusi dira bertsoetan.



POEMA LIBURU BAT - IRAKURTZEKO JARRAIBIDEAK
ANGEL ERRO
Erein. 64 orr. 9,50 euro

Liburu honekin Blas de Otero-Ángela Figuera XIV. Poesia Saria irabazi zuen Angel Errok. Poetaren ironiaren erakusle, titulua engainagarria da, irakurtzeko jarraibideak izan beharrean, orden finko bat segitu gabe gomendagarriagoa suerta baitaiteke irakurketa. Hizkuntza joria eta lirikotasuna agerian utziz, maitasuna islatzen da biziaz, poesiak, bikotekideaz, amaz edo edertasunaz.



POZAREN ERDIA
HARKAITZ CANO
Susa. 88 orr. 12,82 euro

«Lilura eragin eta multiplikatze/ herenarekin aski du arte abstraktuak», dio liburuarri izena ematen dion poemak. 64 soneto bildu ditu Cano: metriak ebakitako eta errimak itsatsitako esaldiak. Tematikoki ohiko gaiei heltzen die; baina formalki, ezohiko moldean. Josteta ariketak dira, ezpainetan zirkulu erdi marrazteko diseinatuak. Haurtzarari buruzkoak borobilak dira zinez.



LANDURA
JOSE LUIS OTAMENDI
Susa. 90 orr. 13 euro

Mundu hobe batekin amestu ondoren mundu zakar batera esnatu den belaunaldia izan da Otamendirena. Kiroltasunez liseritutako porrota dakar liburuak eta aldi berean erronka berriei aurre egiteko kementa. Bere aurreko liburuekin gozatu dutesentzat, garantia bat da. Hitz joko distiratsuz betetako poema liburua da Otamendirena: «Gu geu suntsipen eta / amodio masiboko makinak ez gara ba».



NI EZ NAIZ MIKEL LABOA
U. ITURRIAGA/ H. CANO/
J. LARRATXE
Elkar. 128 orr. 22 euro

Mikel Laboaren bizitza laburbiltzen du maisulan honek: dagoeneko euskal kulturaren historia dena eta haren bizipen pertsonalagoak. Gernikako bonbardaketa, Ez Dok Amairuren sorrera, haren neurologo lana, heriotza... errebisatzen ditu komikiak. Cano eta Iturriagaren gidolari lanak Laboaren bizialdiaren sintesi magikoa sortu zuen eta Josevinskyren ilustrazioek taupaka jarri zituzten haren oroitzapenak.